



# AHOZKO ESAPIDEAK

## HAURREN HIZKUNTZATIK ABIATUTA

### Komunerako baimena eskatzekoak

---

- Ura edan nahi dut!
- Ura edatera joan naiteke?
- Pixa egin nahi dut!
- Komunera joan naiteke?
- Komunera joaten ahal naiz?

### Salatzeko

---

- |                            |                                 |
|----------------------------|---------------------------------|
| - Peiok jo nau!            | - Joka ari dira!                |
| - Jo naute!                | - Borrokan dabil/dabiltza!      |
| - Bultzaka dabil/dabiltza! | - Ez dit/didate jolasten uzten! |
| - Atzeratu da/dira!        | - Mina eman dit/didate!         |
| - Aurreratu da/dira!       | - Baztertzen nau/naute!         |
| - Jotzen ari zatzaizkit!   |                                 |

### Minak adieraztekoak

---

- Mina dut/daukat buruan! (sabelean, oinean,...)
- Odola daukat sudurrean! (belaunean, hankan,...)
- Ubelduta daukat begia! (aurpegia, belauna,..)
- Orkatila handituta dut!
- Besoa hautsita/apurtua dauka!
- Zaurituta dut begia!
- Kolpe ederra daukazu!
- Burutik jota/joanda zaude!

### Zenbait mugimendu arrunta

---

- Buruz behera erori.
- Zerraldo erori.
- Goitik behera busti/blai eginda.

### Ilaran

---

- |                        |                        |
|------------------------|------------------------|
| - Aurreratu zara!      | - Nire txanda da!      |
| - Ez da zure txanda!   | - Zure tokira/lekura!  |
| - Hemen ni naiz!       | - Nora zoaz?           |
| - Aizu, atzera!        | - Zu ez zeunden hemen! |
| - Aurrea hartu didazu! |                        |



# AHOZKO ESAPIDEAK HAURREN HIZKUNTZATIK ABIATUTA

## **Kexatzeko hizkera**

---

- Ze kopeta duzun!
- A ze aurpegia duzun!
- Zu, bai kopeta ederra!
- A ze kopeta!
- Hori kopeta hori!
- Ederra kopeta!
- A ze azala duzun!
- Aurpegia behar da gero!

## **Hasita dagoen joko batean sartzeko**

---

- Utziko didazue jolasten?
- Jolastuko naiz zuekin!
- Jolas daiteke/naiteke?
- Jolasten ahal naiz (zuekin)?
- Ibiliko naiz joko honetan?

## **Jolastera gonbidatzeko**

---

- Nahi duzu gurekin jolastu?
  - Jolastuko zara gurekin?
  - Jolastu nahi al duzu?
  - Nahi duzu joko honetan ibili?
- 

## **Baietz esateko (jolasten onartzeko)**

---

- Beno, ongi da!
- Bai!
- Bai horixe!
- Bai, oraintxe bertan!

## **Ezetz esateko (jolasteari uko egiteko)**

---

- Ez horixe!
- Ez dut nahi!
- Ez dut gogorik!
- Gogorik ez!



# AHOZKO ESAPIDEAK

## HAURREN HIZKUNTZATIK ABIATUTA

### Zenbait jokotan erabiltzekoak

---

- Dadoari eragin.
- Jaurti dadoa.
- Beste jaurtialdi bat.

### Zortea duzula esateko

---

- A zer pagotxa!
- Hori bitsa hori!
- Hori mauka hori!
- A zer zortea!

### Txandan

---

- |                                |                              |
|--------------------------------|------------------------------|
| - Ni lehena!                   | - Aizu, nire txanda da!      |
| - Ni bigarren!                 | - Ez aurreratu!              |
| - Ni hirugarren!...            | - Itxoin, orain ni naiz eta! |
| - Itxaron, nire txanda da eta! | - Nor da orain?              |

### Zehar galderak eta esaldiak

---

- 1.- Irakasleak: "Zer ordu da?"  
Ikasleak: "Irakasleak galdetu dit zer ordu den."
- 2.- Gorrarena egiten:  
\*Batek beste bati: "Zer zabiltza hor?"  
Besteak: "E?"  
Lehenak: "Ea zer zabiltzan hor".
- 3.- Azpiko perpausak (Azalpenak ematen):
  - "Mirenek daraman jertsea oso polita da"
  - "Egin dugun ariketa zail-zaila da."
- 4.- Azpiko perpausak (galderei erantzuna ematen):
  - \* -"Zein jertse da polita?"
    - "Mirenek daramana."
  - \* -"Zein ariketa da zaila?"
    - "Egin duguna."



# AHOZKO ESAPIDEAK

## HAURREN HIZKUNTZATIK ABIATUTA

### Norabideak adierazteko

---

- Aurrerantz.
- Zuzen joan/jo/segi.
- Segi aurrera/aurrerago.
- Segi aitzina.
- Aitzina joan/jo.
- Eskuinera joan.
- Eskuinetara jo.
- Eskuinera / eskuinetara jo.
- Ezkerrera joan/jo.
- Hartu ezkerretara/eskuinetara.

### Gehigarri batzuk

---

- Baita ni ere !
- Ezta ni ere !
- ....ezezik.....ere...

### Zergatik ?

---

Irakasleak haur bakoitzari nahi duen galdera eginen dio eta honek erantzuna emanen dio honelakoak erabiliz:

- .....lako.
- bait...
- .....eta.

Aurreko ikasleak esandako era ezin dute errepikatu.

### Plurala erabiltzekoak

---

Bi ikasle talde eginez, batek singularreko esaldi bat asmatuko du eta beste taldeko batek gauza bere esango du pluralean. Gero, alderantziz.

Adibidez:

- "Nik txakur bat daukat" ..... - "Nik lau txakur dauzkat"
- "Txori handi bat ikusi nuen" ..... - "Txori handi batzuk ikusi nituen"
- "Hiru anaia dituzu" ..... - "Anaia bat duzu"
- "Txanpon batzuk zeneuzkan" ..... - "Txanpon bat zeneukan"